

2025-ko MERKATARITZA-ESTABLEZIMENDUEN MODERNIZAZIO-RAKO LAGUNTZA
EUSKO JAURLARITZAKO TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
MEC 2025

Eusko Jaurlaritzak Merkataritzako Saltokiak Modernizatzeko laguntza programa iragarri du 2024ko urriaren 1etik 2025eko irailaren 30ra egindako inbertsioentzako.
2 motatako inbertsioak lagunduko dira

1. lerroa. Saltokiaren irudia berritzea.

Lerro honen helburua da merkataritza-establezimendua eraberritzeko eta modernizatzeko inbertsioak laguntzea, merkataritza-jarduera garatzeko beharrezkoak diren altzarietan eta ekipamenduetan egindako obren eta inbertsioen bidez, bai eta jarduera horrek behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren barneko eta kanpoko elementuen bidez ere.

- Atal honetan inbertsioak gutxienez 3.000€ +BEZ izan behar du
- Laguntzaren oinarria inbertsioaren %40a da (BEZ gabeko zenbatekoarena)

2. lerroa. Teknologia berriak eta berrikuntza ezartzea.

Helburua da enpresa-kudeaketa hobetzeko ekipo eta aplikazio informatikoak sartzea, zerga-araudira egokitzea, eta web-orrien bidez produktuak merkaturatzea sustatzea.

- Atal honetan inbertsioak gutxienez 1.000€ +BEZ izan behar du
- Laguntzaren oinarria inbertsioaren %40a da (BEZ gabeko zenbatekoarena)

Edozein kasutan, laguntza portzentajea areagotu egin daiteke:

- Honako programaren batean parte hartu badu: «Merkabide», «Escuela Vasca de Retail» o «Eus-commerce», puntu 1.
- Buruturiko inbertsioa 1. lerroan kokatzen bada, 2 puntu.
- Langileen erdiek, gutxienez, kontratu mugagabea badute eta emakumeak badira, puntu 1.
- Berdintasun-plan bat edo lana eta familia uztartzeko plan bat izateagatik, puntu 1.
- Kontsumobideren arbitraje-sistemari atxikita egoteagatik, puntu 1.
- Merkatarien elkarte bateko kide izateagatik, puntu 1.
- Enpresa-transmisiorako Berriz Enpresa programan parte hartu izanagatik, puntu 1.
- Enpresak 10 urtetik gorako antzinatasuna badu, puntu 1.
- Bai Euskarari, Bikain edo Euskaraz Barra Barran parte hartu izanaren ziurtagiria duen euskarazko jendearentzako arreta, puntu 1.
- Komunitate energetikoetako kide izatea (Ekindar), 2 puntu.

Edozein kasutan diru-laguntzaren gehieneko zenbateko 10.000€ izango da, urteko eta saltokiko. Diru-laguntzaren kopurua ezingo da onartutako guztirako inbertsioaren %52 baino handiagoa izan.

Epea: Eskerak maiatzak 8tik irailaren 30era bitartean egin ahal izango dira, aldez aurretik horretarako kreditua agortu ez bada.